

HERRIAREN KANTARIAK

Aspaldiko lagun zaharrei bezala atseginez begiratu diet *Bertsolari* aldizkarian, 47. zenbakian, ageri diren bederatzi gizoni. Bertsolaritza, zorionez, indartsu dago gaur egun eta badiutuzte haiek ondorengo onak euskal kulturaren ahozko arte horri goi-goian eusteko. Baina hauek haien sustraitik sortuak dira; haiek izan direlako eta oraindik badiarelako dira hauek. Beraz, katea ez da eten. Bertsolaritza hor dago sendo, eman-kor, guri. Bertsolarien artean askotarikoak ditugu, beraien dohainak, bizitzak nahiz adinak beren lekuan jarriak: batzuk plazaratu ahala, besteak pixka bat ezkutatzen hasiak eta, azkenez, beste batzuk adinari men egin nahi ezik, hau da, erretiro gozotan sartzeko tentaldia baztertuz plazetan, non edo han, gerra pixka bat eman nahirik, barruak hala eskatuta... Dena dela, *Bertsolari* aldizkariaren 47. zenbakiak gogoetarako aukera eman dit eta barruan bildua lerro xume batzuetara ekarri nahi nuke *Karmel*-en irakurleentzat.

Bederatzi hauetatik batzuk, Bizkaikoak batez ere, ezagunagoak zaizkigu eta 60ko hamarkadan haien hasiera itxaropen-tsua eta geroko jarduera arrakastatsua miretsi genuenok, lehengo distira motelduz dihoakienean ere begirunez eta esker onez hartzen ditugu.

Tradizioaren eskolan heziak

Haiek hasi zirenean, ia guztia zegoen lantzeko, jorratzeko. Berez-berez eta belaunez belaun zetorrena besterik ez zen garai hartan. Doinuen harian, kanta zaharrei jarraituz ikasi zuten bertsotan. Ez ziren alferrik nekatzen silabak kontatzen, doinuak berak salatuko zituen bertso hanka-luze nahiz hanka-motzak... Bertsoen teoria handirik ez zegoen artean eta zegoen apurra ere ez zuten ezagutzen bertsolaririk gehienek:

“Guk bertso zaharrak entzunez ikasi genuen. Teknika berez jaso genuen, azkar kalkulatzeko duzu, doinua hartu, erritmoa. Guk, txapelketak martxan jarrita ere, ez genekizkien zortziko handiaren eta txikiaren izenak. Gogoan dut Irigoienek bertsoaren azkena osatzeko puntua jarri zidala. Kantatzera nindola duda sartu zitzaidan, eta galdetu nion: “Luzean?”. “Bai, luzean”, berak. Guk luzea eta laburra esaten genion. Gero jakin genuen nola deitzen zioten Gipuzkoan. Lehen ez zen besterik erabiltzen, zortziko handia, txikia, eta hamarreko nagusia. Xalbador, Uztapide eta hauek denak zortziko handian ibiltzen ziren, eta tarteka, puntua ipinita, zortziko txikian” (J. Lopategi).



Oraingo gazteak bertso-eskoletatik teoria landurik eta bertsogintzan pixka bat trebatu-rik irteten dira, ofizioa ibilian-ibilian ikasiko badute ere. Bederatzi hauen garaian ez zen bertso-eskolarik. Muxikako “Garriko” salbuespentzat har genezake. Aipagarria da, bestalde, oraingo bertso-eskolei 40

urtez aurre hartu zielako, baina bizitza oso laburra izan zuen. Garai hartan, herriak berak ateratzen zituela gazteak plazara, esan genezake; belaunez belaun zetorren giroan, etxean, auzoan jasotzen zuten bultzada eta baita nolabaiteko irakatsia ere:

"13 urte nituela Uztapide eta Basarri etorri ziren; entzuten egon nintzen. Ni ordurako, 7 urterekin, Santa Eskean hasita nengoen, amonak erakutsitako koplak kantatzen nituen, eta gero neure kabuz basi nintzen berriak kantatzen" (J. Mugartegi).

Plazaratu aurretik ia nahitaez egin beharreko bidea zen Santa Eskean koplari ibiltzea, baina horrez gain pixka bat zirikatu eta bultzatu beharra ere izaten zuten gazteek:

"Gogoan dut nik 16 urte nituela, Uztapide ekarri zuten, besteak ez daukat gogoan, eta bazkaltzen geratzeko esan zidaten. Bazen gizon bat, Burgo izenekoa, probalaria, eta Burgo honek esan zion Uztapideri, niri buruz: "Uztapide, hemen gazte honek, Gipuzku aldera edo bidaliko bagenu, bertsotan ikasiko luke". Eta Uztapidek: "Honek ez dauka inora bialdu beharrik, berorrek erakutsiko du bere burua" (J. Mugartegi).

Herriaren zerbitzuan kantari

Hauen esanetatik zenbait gauza interesgarri atera daitezkeela uste dut. Esaterako, bertsolariak herriaren zerbitzura egon behar duela, herriari, entzuleari zor zaiola, funtzio publiko garrantzitsua duela. Herriko apaizak eta medikuak bezala, bertsolariak ere bere egitekoa duela. Jaietan, ospakizun berezietan, gizarteko hainbat gertaeratan bertsolariaren jarduna behar-beharrezkoa ez bada ere, ezin hobeki etortzen da horrelako ospakizunak janzteko eta haiei behar duten giroa distira emateko. Kontzientzia bera edo antzekoa sumatu dugu herrietako txistulari zaharrengan ere. Zerbitzariak eguneko ordu guztietan egon behar du prest eta jendeak noiz deituko.

Halaxe bertsolariak ere: ordutegi zehatzik ez du; egunaren banaketa malgua behar du, bere buruari begira egon gabe, herriari begira egon behar baitu. Herriren batera abiatzerakoan, hara noizko iritsi behar zuten bazekiten, baina handik noiz itzuliko ziren ez. Honek gautxori, festazale eta alfer fama eman die zenbaitetan, baina goian aipaturiko zerbitzari leialarena jarri behar dela, uste dut, balantzaren beste aldean:

“Sasoi batean Eiberalarrera joaten nintzen. Entzun: irten Mutrikitik Azentzio bezperan, arratsaldean, autobusean Debara, handik Donostiara trenean, talgoan Irunera, han bazeen bar Antxoni, han lo egiten nuen, goizean goiz Hendaiara pasa mugan pasaportea erakutsita, han trena hartzen nuen Donibane-Lobitzunera, handik beste tren bat Donibane-Garazira, eta han Eiberalarreko bat egon obi zen bertara eramaten gintuena autoan. Xalbador, Mattin, Errezil eta laurok izan obi ginen, eta gero Xanpun ere bai. Ganbara handi batean afaria izaten zen. Han egiten genuen lo, eta biharamunean hango apaizak ekartzen ninduen Hendaiako mugara; muga oinez pasa, Irunen topoa hartu Donostiara, han trena Debara, han autobusa Mutrikura eta etxera. Pentsa, hiru eguneko biajea!” (J. Azpillaga).

Sakrifizio handia egin behar zutenean ere, herriarekikoa bete behar zutela pentsatuz egiten zuten.

“- Zergatik onartzen zenituzten halako ibilerak?

- Obligazio bezala hartzen genuen, bertsolariak ginelako, deitzen ziguten eta joan egin behar. Gogoa ere izaten genuen, gazteak ginen. Gainera Francoren mende geunden eta eginala egin behar zen gure herriaren alde” (J. Azpillaga).

Jon Azpillagak San Martin egunean Amoroton ekin zion bertso-kantuari Jon Mugartegi lagun zuela eta 2000. urtean bertsoetako 50 urteak ospatzeko toki berean eta modu berean bertsoetan eginez agur egin nahi zuen. Lanetik erretiroa hartua zen eta bertsoetatik ere halaxe egiteko gogoa zuen, sartu zen ate

beretik 50 urte geroago irtenik. Baina ezin izan du bete, kontizu, asmo polit hori, bere burua goian aipatu duen "obligazio" horrek harrapaturik ikusi duelako:

"Denak kontra jarri zitzaizkidan: Mugartegik ez zuen nahi, Mutrikuko bertso eskolakoek ere ez, Bertsozale Elkartekoek ere ez, eta andreak ere ez, nonbait pentsatzen zuen beste ezertarako ez dudala balio eta bertsoei zertarako utzi behar nion. (...) Segi dezagun, ba, ahal den bitartean" (J. Azpillaga).


Hari beretik doaz beste berriatuarraren hitz hauek ere; bertsoen munduan penarik geratu ote zaion galdetzerakoan, honela erantzuten du:

"Penarik ez, baina kezka bat bai. (...) Kezka daukadana da beharbada neuk ez dudala erantzun herriak merezi duen beste, ez naizelako izan besteen moduko arduratsua, esate baterako Azpillagaren modukoa, ni ez naiz izan horrelakoa, herriari ez diot erantzun behar izan duen neurrian, bertso saioetan ez dut eman eman nezakeen adina" (J. Mugartegi).

Leialtasun araua

Herriaren zerbitzari izatearen ildo beretik, bertsolari-senak berez dakarrena izan behar du kantatzeko deia datorkionean, inondik ahal izanez gero, sekula ezetzik ez esatea. Ez bakarrik kantatzeko deiei, ezta jardunaldian bertan eta honen inguruan sortu ohi diren eskaera eta erreguei ere. Leialtasun hori bertsolari zaharrek kontzientzian itsatsia daramatela dirudi. Berriro ere Mugartegirengana joko dugu. Uztapiderekin gertaturiko pasadizo bat kontatuko digu:

"Behin Uztapiderekin Aulestira joan nintzen. 60a zen. Ni pozik Uztapideren ondoan. Arratsaldean egin genuen saioa, bertan afaldu, eta jendea bertan, gure bueltan. Orduan gaur baino giro hobe zegoen bertsotarako. Afaldu eta saio bat egin genuen bertan, jendea zain geneukan eta. Gero Markinara etorri ginen,



*han autobusa hartu behar zuen-eta Uzta-
pidek, Bilbotik Onda-
rroara zihoana, On-
darroan zen-eta lo
egitekoa. Markinan
kafeak eskatu, eta
kafea atera zigutene-
an orduantxe iritsi
zen autobusa. Eta
Uztapidek: "Etorri al
da autobusa? Doala,
ni kafe hau hartu ga-
be ez noa-eta". Han
geratu ginen, eta jen-
dea inguratu zen be-
rriro bertso eske, eta
beste saio bat egin ge-
nuen. (...) Uztapide
bera zen saltsa ho-
rretakoa. Beste taber-
na batera joan gi-*

*nen, han ezagutzen zuen Uztapidek bertakoa. Han ere bertso
saioa. Dena bete zen taberna, eta kalea ere bai. Goizeko ordu
biak aldean taxia hartu Markinan, ni hemen, etxean geratu, eta
zenbat zen, eta Uztapidek: "Ez, ez, hi joan etxera eta egintzak lo
lasai, hau neuk konponduko diat eta". Horrelakoak asko egin
genituen. Jendeak eskatzen zigunean guk ez genuen kantatzeko
problemarik izaten" (J. Mugartegi).*

Dirua eta adiskideak

Bertsolaritzan garai hartan ere diru pixka bat izaten zela ai-
tortu arren, guztiek azpimarratzen dutena lagunen berotasun
edo babesa da:

Lehenengo batean dozena erdi bat urte pasa ditu nire zain kuadrilatxo batek, tolosarrak; nik ez nuen kantatzeko asmorik eraman, baina banekien zer nahi zuten. Hiru edo lau bertso kantatu nituen eta haiekikoa egin nuen. Gustura zirela esan zidaten, ez nekatzeko neure bururik. (...) Beste kuadrila bat Eibarren, haiek ere zortzi bat urtean zain eduki ditut. Deitzen zidaten eta nik: "Zer nahi duzue, horrenbeste



bertsolari badaude eta". "Guk zure bertsoak nahi ditugu, sei bat bertso nahikoa dituzu, baina zureak behar ditugu". Etorri ziren batzuk, eguna izendatu genuen Eibarrera joateko, eta han bilduginen, mendi txabola batean; dotore prestatua zeukaten. Dozena bat lagunek-edo bazkaria egin zuten, eta han bertso saioa egin nuen. Neuk uste baino gehiago kantatu nuen" (M. Lasarte).

Lan gaitza, ibilera nekagarriak, irabazi urria, baina lagunen aldetik estimazio handia... honela bilduko nuke bertsolari honen ondorengo lerroetan dioena:

"- Estimazioa, beraz, badaukazu...

- Nik hori beti izan dut. Berrogeitaka urtetan ibili naiz bertsotan, eta ez orain bezala, egunez eta gauez baizik, autorik

gabe etxera etorritz, loa galduz... gure ibilerak txarrak izan dira. (...) Guk ez genuen ezer irabazten. Sarritan gertatzen zitzaigun bi tokitan kantatu beharra, eta taxia hartu behar zen. Gauean etxera etortzea pentsatzen bagenuen jende ona aurkitzen genuen sarritan eta etxera ekartzen gintuzten, baina hori ez zen tokiak ere izaten ziren eta taxiari deitu beharra, eta taxiari deituz gero zure jornala joanda dago. Etxera etorri eta patrikan eskua sartu eta behin baino gehiagotan esan nion neure buruari, "hemen gauza gutxi zagok, Lasarte".

Belaunaldi kontuak

Bertsolaritzak oroipen ugari utzi ohi ditu protagonisten barnean; horregatik ez da harritzekoa adinekoek iragan aberats horretarantz maiz samar begiratzea. Zenbaiten adierazpenak



entzun nahiz irakurri ondoren, iragan hori pixka bat idealizaturik dutela esango nuke, urruntasunak sentimenduez jantziarik. Oraingoan alde onak aitortu arren, lehengoa maiteago dutela dirudi:

"Bai, gaurko gazteen artean onak eta sakonak ere badaude, "txirpiak" esaten diet nik, txirpia da bere kasa ateratzen den landarea. Niri asko gustatu zait entzutea Iparraldean dauden bi horiek, Sustrai

*Colina eta Amets
Arzallus. Horiek eztena
sartzen dutenak dira.
Profesionalak dira ho-
riek, argia daukate, eta
gero zer egiten dute?
Bere argia moldatu on-
do eta bertsoa jarri.
Horrek balio du. Mate-
rialak eduki behar da,
eta materialarekin
egingo duzu uztarria.
Bizkaian Elorza ona
da, horrek beti dauka
balioko zer edo zer esa-
teko, eta gero patilla-
dun hori, Iturriaga, ho-
ri ere txirpia da, berez-
koa dauka, baina
Elorza finagoa da, ez*



*da hain latza. Beste gazteak motroilokoak dira, defenditzen dira
baina entzun ez den gauza handirik ez dute esaten” (B. Pujana).*

Gaur egun goitik behera osatzen dela, baina agian lehengo azken puntuko kolpea falta dela dio Azpillagak:

*“Orain bertsoa osorik kantatzen dute, hasi eta bukaerarai-
no. Gure garaian azken kolpea pentsatzen genuen, bukaera,
eta azken aurreko errima, eta gero aurretik hasten ginen irte-
ten zena botatzen. Orain bertsoa oso-oso egiten dute, hasi eta
buka, ona gainera, baina beharbada azken kolpe hori falta
zaie. Hori asko gustatzen zen lehen, eta orain horixe falta da”.*

Euskararen laguntzarik onena bertsoa dela uste du M. Lasartek gazteei aholku ematean hori azpimarratzen du:

*“Nik opa diet bertsolariei goza dezatela eta herria gozatzen
ahalegindu daitezela, herriari poz eman diezaiotela.*

Euskararen laguntzarik onena bertsoa da, nahi duenak nahi duena esango du, baina hori horrela da. Bertsoa aberatsa da bide onetik doanean, eta honetan bukatzen dut nik”.

“Egileor”ek adineko bertsolariak nahi lituzke lagun:

“Ni azken urte hauetan Narbaizarekin nabil gebienetan, (...) eta gu biok enteratzen gara elkarrekin. Baina gainerakotan irratan bertsoak entzuten hasten naizenean, ulertu ere ez ditut egiten askotan, zati batzuk bai, baina azkenerako bertsoa galdu egiten dut, ezin ulerturik geratzen naiz. Nik gazteekin, ez gorrotorik diedalako, nabiago nuke ez kantatu, eta kantatu behar dudana neure adineko batekin kantatu”.


Baina bada hauen artean, iraganera ez ezik etorkizunera itxaropentsu begiratzen duenik ere. J. Lopategi dugu horren adibide argia. Lehengoa ala gaurkoa den hobe galdetzerakotan, honela erantzuten du:

“Lehengoa leben behar zen, eta oraingoa orain behar da. Orain hau behar dugu, gaurkotu egin behar du bertsolaritzak. Nik uste gaurko bertsolaritzak bide ona daramala. Nik gazteei esaten diet: “Zuek egin behar dituzue aproba guztiak, zeuek pentsatzen duzuen guztia intentatu behar duzue, gazteak ez du erridikulorik egiten sekula aproba berriak egiten dituenen, erridikuloa egiten du geldirik dagoenean”. Ibili abala ikusten du gazteak zein den biderik onena beretzako eta nondik ateratzen duen fruiturik onena. Ondo ari dira gazteak. Ahaleaginean ari dira, bakoitzak zerbait berria aportatu nahian. Argiak direnek aurkituko dute bidea.

Nik ulertzen dut entzule askok, baserritarrek eta, lehengo kultura zabarra bizi dutenek, ez hartzea berotasunik eta gozotasunik oraingo bizkerari. Nolabaiteko transizio garaian gauden. Baina bertsolaritzak lehengoan jarraituko balu gaurko gazteriak ez luke hereganatuko, gauza arkaikotzat hartuko luke, museo baterako itxura hartuko lioke”.

Kantuan bai ikusten du lehengoan eta oraingoan arteko koska, eta lehengoan alde. Hona beraren hitzak:

"Gauza bat dago nabarmena: lehen bertsolariak kantari hobeak ziren, kantakera arkaiko eta biziagoa zuten. Uztapidek ahots ederra zeukan, Lasartek ere bai, bajua eta sakona, Basarrik sendo kantatzen zuen, Xalbadorrek izugarrizko inpresioa ematen zuen, basoan irrintzi bat entzungo balitz bezala zen haren kantua. Eta Mattinek txoriek bezala kantatzen



zuen. (...) Lehen, bertsotarako, ahots ona behar zen, belarri ona, eztarria, eta gero gainera buru argia izan. Lazkao Txikik ahots makala zuen, baina hura hasi zen destakatzen mikrofonoak etorri zirenean. Mikrofonorik izan ez balitz, hura galdu egingo zen, ahots sendoa ez eukalako. Gaur zer gertatzen da? Gazteek umetan ez dutela kantatzen, ez dute ahotsa desarroilatzen. Gu, oster, gure garaian igandero elizan kantari ibiltzen ginen, eskolan ere bai, ekintza guztiak kantuan hasten genituen, eta ahotsa desarroilatu egiten da erabiliz gero, bestela ez. Lehengo zaharren bentaja bat hori zen. Gaur desarroilatu gabeko ahotsak entzuten dira".

Hona, irakurle, adineko bertsolari hauen adierazpenak irakurriz ikasi ditudan zenbait gauza. Niretzat izan den bezala zuretzat ere haien lana eskertzeko eta haiek goraipatzeko izan bedi.

Luis Baraiazarra Txertudi